

Enpresaren azken kasketaldia

Idatzi honen bitartez steilasek enpresaren azken jarrera salatu nahi du. Apirilaren 6an, mahai negoziatzailearen ostean, enpresak epaitegietan galdutako sententzia dela eta, **LEP-arteako kontratua duten hezitzaileei, borondatezko eszedentziak ez ematea hemendik aurrera** erabaki du.

Hau dena ulertzeko garrantzitsua da jakitea zer dion gure lan hitzarmenak:

"Haurreskolak Partzuergoan urtebeteko antzintasuna bete duten langileek borondatezko eszedentzia eska dezakete". Langileen Estatutuak gauza bera dio; baldintza bakarra urte bateko antzintasuna da.

1.-2014ko irailean LEP-arteako kontratudun langile batek, urte bat baino gehiagoko antzintasuna zuenak, borondatezko eszedentzia eskatu zuen. Pertsonal Kudeaketako burua, Begoña Barrancok, baldintza bat jarri zion; itzultzekotan bere LEP-arteako kontratua apurtuko zela, bestela ez ziola eszedentziarik emango. Langileak, momentu horretan eszedentzia behar zuenez, onartu behar izan zuen baldintza nahiz eta jakin Enpresak bere eskubideak urratzen zituela. Langileak jokabide hori salagarria zela argi zeukan, ez lan Hitzarmenean ezta Langileen Estatutuan oinarrituta ez zegoelako.

2.- Langileak itzuli nahi izan zuenean, enpresak ordezkapen kontratu bat eskaini zion bere Lep-arteako kontratua amaituta zegoelakoan. Langileak auzia epaitegira eraman zuen eta irabazi egin du. Epaia argi dio:

- "...la empresa rechazaba que pudiera admitirse una excedencia voluntaria en un contrato como el suscrito por las partes, lo cual desconocemos de dónde se extrae..."
- "... nos encontramos ante un contrato temporal de duración indeterminada pero en el que consta que el término pactado llegará: cuando la vacante ocupada se cubra tras finalizar el proceso de selección que se convocará para cubrirla,... La amortización de estos puestos de trabajo (LEP-arteako), mediante una nueva ordenación de los puestos de trabajo (LAL), aunque lícita y permitida... no puede conllevar la automática extinción del contrato de interinidad celebrado para cubrirla porque no está prevista legalmente como causa de extinción,... Depende de la diligencia de la empleadora en poner en marcha los oportunos procesos de selección (OPE).

3.- Orain kasketaldi moduan, Enpresak (epaile batek kontrakoa esaten ez badio) LEP-artekoei ez diela emango borondatezko eszedentzia erabaki du. Partzuergoak jakin badaki, erabakia guztiz arbitrario eta oinarri juridiko bakoa dela, eta galduko duela epaitegietan, baina bitartean diru publikoak xahutzen ditu, AMORE EZ EMATEARREN. Enpresa Gerenteak, Maite Larrañagak, ikasi behar du epaileen erabakiak onartzen, eta bere pertsonal kudeaketako buruari gogoarazi beharko dio Lan Hitzarmenean eta Langileen Estatutuan jasotzen dena aplikatu behar duela, asmakizun gehiago egin barik; Bego Barrancoren erabakiak salaketa eta epaiketa ekarri baititu.

4.-Lan Hitzarmenak zehazten ez dituen hainbat egoera, Enpresak bere onerako interpretatzen ditu "Haurreskolen Funtzionamendurako Jarraibide Orokorra"k jasotzen duenaz baliatuz. Honen aurka ere, **steilasen** bitartez salaketak jarri dituzten langileek sententziak irabazi dituzte. Pixkanaka, epailek Bego Barrancoren "nik diodalako" aurkako bideak zabaltzen ari dira. **steilasek** askotan eskatu du sindikatuen parte hartzea Jarraibide Orokorrak zehazterakoan, jakin badakigulako bertan langileen eskubide asko urratzen direla. Erantzuna beti ezezkoa izan da, eta geratu zaigun bide bakarra langileekin epaitegietara jotzea izan da.

5.-Enpresari akordioak errespetatzea eta kasketaldiak alde batera utz ditzala eskatzen diogu. LEP-arteako kontratua duten langileek borondatezko eszedentzia eskatzeko eskubide osoa dute, eta Enpresak ezin du erabaki kontratu mota hau duten langileei eskubide hori urratzerik. Nahikoa da!!!!